

6.- FUNTSEZKO JARDUERAK

- Lehenik produktuak erosten ditugu. Bertako produktuak dira, "km0"-z ezagutzen ditugun produktuak hain zuzen ere. Gainera, aurretik esan dugun bezala, inguruko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sustatu nahi dugu, hemengo ekonomiari bultzadaxo bat emanaz.
- Aplikazio bidez eskatu daiteke, gaur egun jende ugari delako aplikazio bat erabiltzeko erraztasuna, eta horrekin batera, bezeroen erosotasuna bermatu nahi dugu.
- Etxera eraman daiteke, baita jendeak nahi duen lekura ere, gure ezaugarri nagusienetako bat bezeroen erosotasuna bermatzea delako. Hala ere, enpresan bertan ere jaso ahal izango da.
- Janaria prestatuta, (enpresan bertan prestatuko dugu) edo prestatu gabe hartu daiteke, bakoitzaren gustura.
- Jaki begetarianoak eta beganoak ere guztien eskura egongo dira bakoitzaren elikadura ohituren arabera. Hauentzat, eskaintza berezia izango dugu gainera, hau da, sekzio berezi bat beraien gustu eta ohituretarako.
- Produktu freskoak dira, hau da, ez dira hozkailuan egoten prestatu aurretik, horrela, garaian garaiko produktuak direla egiazta dezakegu, denboraldiaren arabera hain zuzen ere.

km.0